

Berrikuntzak gaixotasunei buruzko nahitaezko adierazpenetan 14/06/30

Ministroen Kontseiluak onetsitako Errege Dekretuak **aldatu** egiten ditu **animalien gaixotasunei buruzko nahitaezko adierazpenen inguruko arauak**.

Hona hemen araudi berrian agertzen den **berrikuntzetako batzuk**:

1. **Ardi- eta ahuntz-bruzelosiari, behi-bruzelosiari, behi-tuberkulosiari eta behien leukosi enzootikoari dagokionez, lehenengo mailako fokuak astebetean adierazi beharko dira**, eta bigarren mailako fokuak hilabetean, gaixotasun horiek ofizialki libre deklaraturako probintzietan.
2. ENBk (OIEk) **endemikotzat jotzen dituen uretako animalien gaixotasunen bigarren mailako fokuak hilabetean adierazi beharko dira**, astebetean jakinarazi beharrean.
3. **Bertan behera utzi da behien pleuropneumonia kutsakorra eta behien leukosi enzootikoa saihesteko probak egin beharra animaliak azoketara eta merkatuetara mugitzean**.

MAGRAMAren [prentsa-oharra](#)

Gaixotasun emergenteei buruzko datu-base berria 14/06/20

EFSAk eta Gaixotasunak Prebenitzeko eta Kontrolatzeko Europako Zentroak (ECDC) *VectorNET* abiarazi dute: lau urteko proiektua, helburu gisa duena **datu-base partekatua eratzea gizakiei eta/edo animaliei eragiten dieten gaixotasunen bektoreei buruz**.

Aipaturako tresnaren oinarrian EBko ikerketa-erakunde eta -organismoen sare batek emandako datuak egongo dira, eta **informazioa emango du bektoreen bidez transmititutako gaixotasunen presentziatz, banaketaz eta ugaritasunaz**. Informazio hori bi organismoek egindako arrisku-ebaluazioetarako erabili ahal izango da.

EFSAk informazio-bideo bat eskegi du bere [webgunean](#). Bertan, elkarrizketak egin zaizkie Franck Berthe-ri (EFSako Animalien eta Landareen Osasuna Arloko burua) eta Hervé Zeller-i (ECDCko Gaixotasun Emergenteen eta bektoreen bidez transmititzen direnen programako zuzendaria). Bada, elkarrizketa horietan bi erakundeek esparru horretan egiten dituztenen berri ematen da.

- [Bideoa: bektoreen bidez transmititzen diren gaixotasunak](#) - EFSA 2014.

Arkakusoak, eltxoak, akainak edo euliak bezalako organismoak dira animalia infektatu batetik gizaki bati edo beste animalia bati gaixotasun bat transmititzen dioten bektoreak. Bada, transmititzen dituzten gaixotasun asko jotzen dira gaixotasun infektioso emergentetzat; izan ere, lehenengoz agertu edo aurretik ere existitu izan diren arren, azkar areagotzen ari dira euren eragina eta

hedadura geografikoa. **Azken urteotan gaixotasun emergente asko agertu da. Adibide batzuk dira giza immunoeskasiaren birusa (GIB), behien entzefalopatia espongiformea (BSE), arnasa-sindrome akutua eta larria (SARS), Nipah birusak eragindako infekzioa, Ebola birusak eragindako infekzioa, Krimea-Kongoko sukar hemorragikoa edo orain dela gutxi Schmallerberg birusak eragindako infekzioa.**

Pertsonen bidaiak, nazioarteko merkataritza, animalien mugimendua, klima-aldaketa eta nekazaritza-jardunbide modernoak dira bektoreak eta gaixotasunak sartzea ahalbidetzen duten faktoreetako batzuk, eta horrela, gaixotasunak transmititzen dira eremu tropikaletatik Europa bezalako eremu epelagoetara.

EFSAk eta ECDCk emandako zientzia-aholkularitzak bildu egiten ditu giza medikuntzari eta albaitaritzari buruzko ezagutzak. Arriskuaren ebaluazioak politikarien lagungarri dira, Europako bizilagunek eta animaliek gaixotasun-mota horien arriskupean egotea saihesteko.

- [Artikuluak: gaixotasun emergenteak](#) - ELIKA 2012

[Aldaketak BEEari buruzko legerian 14/05/29](#)

Argitaratu egin da [338/2014 Errege Dekretua](#). Joan den **maiatzaren 10ean** indarrean sartu zen eta 2000. urteko legeria aldarazten du. Azken horrek araupetu egiten zuen EETekin lotutako arrisku-material espezifikoak (MER) suntsitzea.

Zehazki, honako aldaketa hauek sartzen ditu:

1. Indargabetu egiten da 1911/000 Errege Dekretuaren IV. eranskina. Bertan zerrendatzen ziren **arrisku-material espezifikotzat jotzen diren ehun eta organoak**. Bada, **hemendik aurrera, araudi erkideak ezartzen duena izango da erreferentziazko zerrenda**.
2. Hemendik aurrera **behi-buruen haragia bil daiteke, berariazko baimena duten zatitze-geletan**.

Orain arte, baimenduta zegoen ardi eta ahuntzen hezur-muina ateratzea berariaz baimendutako zatitze-geletan eta behi-kanalen edo kanal-zatien bizkar-hezurra ateratzea berariaz baimendutako harategietan, betiere gainbegiratuta eta erregistratuta. Errege Dekretu horrek aukera ematen du berariaz baimendutako zatitze-geletan behi-buruen haragia biltzeko (legeria nazionalak ez zuen aukera hori jasotzen).

[Animalien osasun-gaietako adituen bilatzailea 14/05/20](#)

Animalien osasunaren ikerketa-zentroak ([CReSA](#)) **Animalien osasun-gaietako adituen bilatzailea** sortu du, sarbidea ematen duena hainbat esparrutako adituen zentroko ikertzaileen datuetara:

epidemiologia, bakteriologia, biologia, parasitologia, txertoak sortzea, diagnostikoa eta immunologia...

Bilatzailea doakoa da, gaztelaniaz eta ingelesez erabil daiteke, eta bilaketak hitz gakoak erabilia zein bilatzaile aurreratu baten bidez egin daitezke. Horri esker, **ikertzaile adituak honako hauen arabera aurki daitezke: ondoen ezagutzen duten espeziea (txerriak, hegaztiak, hausnarkariak, eltxoak, laborategiko animaliak edo animalia basatiak)**, ikerketako azpi-programa edo atxikita dauden unitatea edo zerbitzua.

Bilaketaren bidez ikertzaileak aurkitu ondoren, harremanetan jartzeko datuak, argazkia, curriculum laburra eta egin dituzten lan garrantzitsuenak ikus daitezke.

- [Animalien osasun-gaietako adituen bilatzailea](#) - CReSA

Schmallenberg birusa European: gaur egungo egoera 14/05/16

EFSAk egin berri duen txostenak honako ondorio hauek biltzen ditu:

Patogenesisia

Seroprebalentziari buruzko datuekin erkatuz gero, malformazioen kopurua nahiko txikia da, eta horrek **pentzarazten du gaixotasunaren maiztasuna baxua dela.**

Esperimentuetarako animaliekin egindako azterketen arabera, **malformazioak eragiten dituzten infekzioen tasa oso txikia da**, baita infekzioa suszeptibilitate handieneko epean gertatzen denean ere.

Identifikatutako espezie kaltetuak

Birusaren aurkako antigorputzak atzeman dira behien, ardien eta ahuntzen artean, eta beste 12 baso-espezie hauetan: alpakak, Anatoliako ur-bufaloak, bisonteak, orein gorriak, lugorri-oreinak, arraba-oreinak, Sikako oreinak, Muntjac-ak, Chamois-ak, basurdeak eta txakur basatiak, eta zoologikoko 19 espezie.

Transmisio-bide posibleak: transmisio horizontala, bertikala eta bektoreen bidezkoa

Ez dago intseminazioaren bidezko transmisioari buruzko zientzia-ebidentziarik. Oraingoan, ez dago transmisio bertikala transmisio-bide nagusia dela adierazten duen ebidentziarik.

Neguan bektoreen jardura txikia bada ere, birusak negua gainditzea lortzen du. Oraingoan ez da ezagutzen zein diren birusari latente egotea ahalbidetzen dioten mekanismoak.

Immunitatea

Badirudi, infekzioaren ostean, erantzun immunitarioa urtebete baino gehiago luzatzen dela. Nolanahi ere, ez dago baieztapen hori berresten duen azterlanik.

Seroprebalentzia European

Seroprebalentziari buruzko azterlanek, halaber, adierazten dute ziurrenik birusa dagoeneko Europa osoan hedatu dela.

Birusaren hedatzeko ahalmena zehazteko azterlanen arabera, azterlanen mugimenduak murriztea eta geldiaraztea ez da neurri eraginkorra birusaren transmisioa ekiditeko, elkarren ondoko ustiategiaren artean.

Azterketa genetikoa

Agerian geratu da azterlanak egin behar direla *Orthobunyavirus* taldeko birusen sekuentziazio genomikoari buruz, *Schmallenberg* birusaren eta Simbu serotaldeko birusen arteko harremana ulertzeko.

[Schmallenberg birusa European - EFSA](#)

["Schmallenberg" virus: State of Art- Txostenaren datuak](#)

[Aldaketak indioilarrentzako eta oilaskoentzako enrofloxazinaren administrazioan 14/04/23](#)

AEMPSEK (Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentzia) apirilaren 10ean argitaratu duen informazio-[ohar baten](#) arabera, **aldatu egin behar dira indioilarrentzako eta oilaskoentzako enrofloxazina duten albaitaritzaren sendagaiak** (edateko uraren bidez ematen direnak) merkaturatzeko baimen guztiak. Aldaketa [EEk otsailaren 28an hartutako Erabakia](#)ren ondorio da.

AEMPSEK bere [web orrian](#) argitaratu du aldatu behar den sendagaiari buruzko informazioa eta hori ezartzeko nola jokatu behar den adierazi du:

Merkaturatzeko baimenen titularrek bete behar dituzten baldintzak:

1. **Azterlan berriak egin behar dituzte, *E. coliren* aurreko gaur egungo sentiberatasuna** hartzen duen administrazio-eredu berria osatzeko, jomuga diren patogenoen aurreko erresistentziaren garpena mugatze aldera.
2. **Zientzia-justifikazioa aurkeztu behar dute**, egiaztatzeko administrazio-eredu berri hori **eraginkorra izango dela** jomuga diren patogenoen tratamendurako.
3. Oilaskoentzako eta indioilarrentzako administrazio-eredua aldatzen denean, **itxarote-denbora**

egokiak ezarriko dira.

4. **Ingurumenaren gaineko arriskuaren ebaluazio berrikusia aurkeztu beharko dute**, eta ikertu egin beharko dituzte erabiltzaileen eta jomuga diren espezien segurtasunerako eragin posibleak.
5. **Indioilarrentzako itxarote-denbora estrapolatu egiten bada** oilaskoetan hondakinei buruzko azterlanetatik, **segurtasun-faktore gehigarria gehitu beharko da**, hondakinei buruzko aurretiko azterlanen datuak aintzat hartzeko. Azterlan horiek egiaztatu zuten enrofloxazina mantsoago kanporatzen dela indioilarretan oilaskoetan baino.
6. Oilaskoetan eta indioilarretan **arnasketa-gaixotasunak tratatzeko sendagaien arrisku/onura** orokorraren arteko harreman berria **aurkeztu beharko dute**.

Baimenak aldatzeko beharrezkoa den denbora-tartean merkatuan hornidurarik ez izatea saihesteko, koexistentzia-epea egongo da.

Albaitariak sendagai horiek agintzeko, honako hauek hartu beharko dituzte aintzat:

- **Deuseztatu egin da salmonellosia** tratatzeko oharra.
- **Itxarote-denbora** hauek ezarri dira: **7 egun oilasko-haragiarentzat eta 13 egun indioilar-haragiarentzat**.
- Horrez gain, **aldatu egin dira posologia, kontraindikazioak, ohar bereziak, propietate farmakologikoak eta erabiltzeko neurriak**.

AEMPSren web orrian kontsultatu ahal dira [BAIMENDUTAKO SENDAGAIEN FITXA TEKNIKOAK](#).

Europako Batzordearen ekintzak erleak babesteko 14/04/16

2007az geroztik, Europako eta munduko zenbait argitalpen eta foro ohartarazten ari dira **erleen hilkortasun-tasa oso handia dela eta erlauntzen kopuruak azkar egin duela behera**.

2009an, [EFSAren proiektu](#) batek honako hau adierazi zuen:

1. EBko estatu kideetan **erleak zaintzeko sistemak ez ziren nahikoak**.
2. Herrialdeetan **ez zegoen datu ofizial adierazgarririk eta konparagarririk**, arazoaren garrantzia balioesteko aukera ematen zuenik.

Hain zuzen ere, gabezia horiek arintzeko eta, zehazki, herrialdeen artean datuak biltzeko metodoak bateratzeko, ["EPILOBEE" azterlana](#) abiarazi zen. Europako azterlan epidemiologiko bat da, 2012-2013 epean eztitarako erleen kolonien galeraren ingurukoa. Honako hauek dira azterlan horren ondorio nagusiak:

- Eskualdeen artean **alde handiak daude, erleen hilkortasun-tasari dagokionez**.
- **Neguko kolonien hilkortasun-tasak % 3,5 eta % 33,6** artekoak izan ziren azterlanean parte hartu zuten herrialdeen artean, eta iparraldearen eta hegoaldearen arteko eredia ezberdina izan zen.

- Honako hauek izan ziren batez besteko hilkortasun-tasa % **10 baino txikiagoa zuten herrialdeak: Grezia, Hungaria, Italia. Lituania, Eslovakia eta Espainia**. Herrialde horietan dago EBko erleen populazioaren % 47,3.
- Hauetan hilkortasun-tasa % **10 eta % 15 bitartekoa izan zen: Alemania, Frantzia, Letonia, Polonia eta Portugal**. Herrialde horietan dago EBko erleen populazioaren % 27,7.
- Herrialde hauetan, berriz, hilkortasun-tasa % **20 baino handiagoa izan zen: Belgika, Danimarka, Estonia, Finlandia, Suedia eta Erresuma Batua**. Herrialde horietan dago EBko erleen populazioaren % 5.

Beste alde batetik, erleen osasuna babesteko EBn hartu diren neurriak jakinarazteko, EEk bere web orrian eman du gauzatu diren ekintzen berri (galde-erantzun moduan):

EBko zaintzak zer dela-eta ez du bere baitan hartzen plagiziden monitorizazioa?

Batzordeak EBko erreferentziazko laborategiari plagizidak azterlanean sartzeko eskatu ziolako. Nolanahi ere, proiektuaren zirriborroa estatu kideekin eztabaidatu zen, eta **adituek pentsatu zuten etapa horretan ezin zela gauzatu plagiziden zaintzarako programa hori**.

NPEaren erreforma berriak nola laguntzen dio sektoreari?

Landa-garapenerako programa berriekin, estatu kideek euren eskura dituzte hainbat neurri, besteak beste: **prestakuntza, aholkularitza-zerbitzuak, kalitate-programetan partaidetza eta sustapena, inbertsioak, lankidetzako proiektuak** eta EBk kofinantzatu ahal dituen arriskuen kudeaketarako proiektuak.

NPEaren erreformako beste neurri batzuk ere zeharka onuragarriak izan daitezke erlezaintzarako, adibidez: laborantzak dibertsifikatzeko neurriak eta interes ekologikoko guneak, erleentzat ingurumena hobetzen lagun baitezakete.

- [NPEak ERLEZAINZARAKO EZARRITAKO NEURRIEN EBALUAZIOA](#)

Informazio gehiago:

[Erleen osasuna](#) - EE

[Erleen ekoizpena](#) - EE

[PROIEKTU NAGUSIAK](#) -EE

[PPAren arriskua EB 14/04/08](#)

2007an Afrikako Txerri Izurritea (PPA) Georgian sartu zenez geroztik, Kaukaso osoan eta Errusiako Federazio osoan zabaldu da. 2012ko uztailean Ukrainian sartu zen, eta azken aldian (2013ko ekainean) Bielorrusiak ere jakinarazi du. 2014ko urtarrilean Ukrainian atzeman eta egiaztatu zen berriz ere, hala basurdeen nola etxeko txerrien artean. **Duela gutxi Lituaniako eta Poloniako basurdeen artean ere egiaztatu da.**

Europako Batzordeak EFSako Animalien Osasun eta Ongizate Panelari (AHAW) eskatu zion PPARI

buruzko zientzia-irizpide bat egiteko, horren **prebalentzia baloratzeko Europar Batasunaren (EB) herrialde mugakideetan, eta EBn PParen birusa sartzeko balizko bideak sailkatzeko**. Horretarako, zientzia-irizpenak hau deskribatzen du:

- PParen birusen banaketa geografikoa herrialde mugakideetan.
- Agerraldien ezaugarri epidemiologikoak.
- EBko ekialdeko herrialde mugakideetako prebentzioaren eta kontrolaren erronkak.

Ondorio nagusiak

1. **Ez dago aldaketarik** egun atzemandako PParen anduiaren **genoma sekuentziantuan, Georgian 2007an atzemandakoaren aldean**.
2. Laborategiko eta landako azterlanek erakusten dute tartean dauden anduiak oso oldarkorrak diren arren, **basurde eta etxeko txerrien arteko zeinu klinikoak ez direla beti argiak eta infekzio-bidearen**, infekzio-dosiaren eta animalien egoera immunearen arabera direla.
3. Gaur egun ez dago zaintza serologikorik **Georgian, Armenian eta Errusiako Federazioan**; beraz, **egiako seroprebalentzia ez da ezagutzen**.
4. **Ezin da baztertu epe luzera sintomatologia klinikorik gabeko eramaileak egotea** EBren herrialde mugakide infektatuetan.
5. **Ez da ezagutzen epe luzera gaixotasunaren epidemiologian sintomatologia klinikorik gabeko eramaileak izan dezaketen zeregina**.
6. Ez dago **EBko herrialde mugakide** infektatuetan animaliak identifikatzeko sistema eraginkorrik, eta horrek **zaildu egiten du atzematea**.
7. **Atzeko patioko animaliak** dira EBren herrialde mugakideen txerri-ekoizpenaren zati handi bat, eta **PParen birusa hedatzea errazten duen hutsunea dakarte**, nagusiki, biosegurtasuna ez delako egokia, hondakinekin elikatzen direlako, txerri infektatuak edo fomite kutsatuak mugitu egin daitezkeelako eta animaliak etxean hiltzen direlako.
8. **Infektatutako taldeetako basurdeen ehiza intentsiboak handitu egin dezake PPA hedatzeko arriskua**, eta horrek ondorio bereziki larriak ditu nazioarteko mugetan.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

- [EFSAren zientzia-irizpena](#)
- [PPAri buruzko ikastaroa on-line](#) - ASFORCE (ingelesez)
- [Fitxa: PPA](#) - ELIKA

2013 urteko txostena: RASFF - RASVE alerta sareak 14/03/19

ELIKAk, 2013ko RASFF (animalia elikadura eta elikagaiak) eta RASVE (animalien osasuna) bitartez jasotako alerta eta jakinarazpenen laburpen txostena berri eman du.

Pasa den urtean, animalen elikaduraren arloan 272 jakinarazpen egin ziren, elikagaien artean 2.653 jakinarazpen eman ziren eta animalien gaixotasun fokoak 10.115 izan ziren.

Albaitaritza-tratamenduaren alternatibak, baimendutako sendagairik ez dagoenean 14/02/19

Batzuetan, albaitariek ikusten dute **ez dagoela printzipio aktiborik** gaitz bat sendatzeko. Orobat, batzuetan ikusten dute sendagaia existitu arren, euren **herrialdean ez dagoela baimenduta** edo **beste espezie baterako** preskribatuta dagoela.

Egoera horren aurrean, indarrean dagoen legeriak ahalbidetu egiten du animalia bati edo animalia-talde txiki bati beste sendagai bat ematea, preskripzio-printzipio alternatiboak erabiliz, animalien sufrimendu onartezina saihesteko.

Printzipio horiek "**Preskripzioaren turrusta**"-ri dagozkio:

1. EKn (estatu kidea) **beste animalia-espezie batentzat** edo beste gaitz bat duen espezie berbererako sendagai baimendu bat ematea.
2. Arestiko kasua existitzen ez bada, EKn **gizakientzat baimendutako sendagai** bat ematea.
3. Arestiko kasua existitzen ez bada, **beste EK batean gaitz horretarako baimendutako sendagai** bat ematea.
4. Aurreko aukeretako bakar bat ere ezinezkoa bada, baimendu egiten da **formula magistral bat, auto-txertoa, prestakin ofiziala...** egitea eta erabiltzea, betiere kasu horretarako espezifikoa bada eta indarrean dagoen legeriaren xedapenak errespetatzen badira.

Etiketako azalpenez kanpoko preskripzio-kasu guztietan, **albaitariak** berak eman beharko ditu sendagaiak; bestela, bere **erantzukizun zuzenaren pean** egin beharko da.

Europako Albaitarien Federazioak (FVE) informazio-liburuxka bat argitaratu du, non modu grafikoan azaltzen baitira kasu horietan jarraitu beharreko argibideak, hala loditzeko eta laguntza-animaliekin, nola ekidoekin:

- [FVEren liburuxka](#)

Zerikusia duen legeria

- [2001/82/EE Zuzentarauaren](#) 10. artikulua ([2004/28/EE zuzentaraua](#) k aldatu zuen).
- [109/1995 Errege Dekretu](#)ko aparteko preskripzioen 81. artikulua
- [122/2013 Araudia](#)